



## **EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE)ren artean ekonomia eta enplegua suspertzeko adostu duten akordioaren oinarriak, zerbitzu publikoak eta gizarte politikak defendatuz, autogobernu zabalago eta hobea oinarri hartuta**

Covid 19-ak mundu mailako krisi bat eragin du, duela hilabete batzuk pentsaezin egiten zitzaizkigun ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialak ekarri dituenak. Izan ere, ondorio horien behin betiko eragina zehazteke dago oraindik.

Erakundeen aldetik hartu diren talka-neurriei esker, berehalako arriskuari erantzun ahal izan zaio, eta gure baliabide guztiak erabili ditugu osasun eta gizarte krisiari aurre egiteko eta enpleguan zein enpresetan eragin ditzakeen kalte larrienak arintzeko.

Euskadi ez da salbuespena izan pandemia horretan, eta larriki kaltetua izan da gizarte mailan eta ekonomian zein alderdi emozionalean. Gainera, koronabirusak eragindako krisi honek argi eta garbi erakutsi digu munduko populazioa –eta, horrekin batera, Euskadikoa– osasungertakarien eraginpean egongo dela etorkizunera begira.

Aurreko legealdian bi alderdiek elkarlanean lan egin izanak Eusko Jaurlaritzaren jarduna bideratzeko oinarri gisa balio behar du, eta funtsezko helburua da osasun-sistema publikoa ezartzea eta indartzea, bai eta Euskadiren berreraikuntza sozial eta ekonomikoa bideratzea ere, euskal gizartea prestatu ahal izateko pandemiak bizkortu baino egin ez dituen erronka berri guztietarako (biztanleriaren zahartzea, trantsizio ekologikoa, digitalizazioa...).

Errealitate horretaz eta hartu beharreko erabakien garrantziaz jabetuta, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) bat gatoz krisialdi honi aurre egiten jarraitzeko beharrarekin, gizarte kohesionatuagoa eraikitzeko aukera gisa, Ongizate Estatu indartuarekin eta desberdintasunak murriztuko dituenarekin.

Gauzak horrela, bidezkoa da aitortzea azken hilabete hauetan pandemiari aurre egitera begira gizarte osoak hainbat esparrutatik egin duen lan eskerga, eta, orain, euskal gizarteak gugandik espero duen mailan jartzen jakin behar dugu.

Ilido horretan, bi alderdi politikook partekatzen dugun helburua adierazten dugu: hurrengo Jaurlaritzak hartu beharko dituen erabaki premiazkoenak argi eta garbi definitzea eta behar besteko erreformak bizkortzea, egindakoak eman digun esperientzia aurreratuan oinarrituta, Nazio Batuen 2030 agendarekin lerrokatuta eta partekatzen ditugun hiru baldintza oinarri hartuta:



## **1. Euskal herritar guztien osasuna bermatzea.**

Argi dago Covid 19aren pandemia inflexio-puntua izan dela herritarren osasun-premiei eta osasun-politikako lehentasunei dagokienez, patologien, osasun-arriskuen eta gizarte-taldeen arabera. Badirudi beharrezkoa dela osasun arloko arau eta gobernu-tresnak eguneratzea, agertu diren mehatxu berriak ikusita. Horregatik, gaixotasunaren bilakaeran agertzen ari diren larrialdiei berehalako arreta emateaz gain, larrialdi-egoerak agerian utzi du, berriz ere, alderdi politiko biok duela hamarkada bat bultzatu genuen paradigma-aldaketan sakontzen jarraitu behar dela, alderdi sanitarioa eta soziala uztartuz.

Bizi izandako esperientziak azpimarratzen du gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta zaintza eskaini behar dizkietela egoera ahulenean dauden pertsoneri, eta herritar guztiei erantzun behar dietela pandemiaren ondorio sozialen aurrean; halaber, egoera berriak prebenitu eta detektatu behar dituztela, eta laguntza berriak eman behar dizkietela herritarrei, oro har. Gure Gizarte Zerbitzuen Sistemak beste bultzada bat behar du euskal gizarteak dituen erronka berrietara egokitzeko, eta arreta berezia jarri behar zaio erronka demografikoari. Gure helburua delako adineko pertsonentzako gizarte eta osasun-arreta indartzen eta konektatzen jarraitzea, pertsona horiek beren etxean zein egoitzetan bizi direla.

## **2. Ekonomia eta enplegua suspertzea, pandemiaren aurreko mailak berreskuratze, baina erronka eta behar berrietara egokituta.**

Covid 19aren pandemiak ondorioak ekarri ditu Euskadiko ekonomian eta enpleguan. EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) ados gaude ondorengoak helburu partekatutzat ezartzearekin: enpleguei eustea, prekarietatearen eta behin-behinekotasunaren aurka jardutea, ekonomia suspertzearekin batera, hazkunde-bidea berreskuratze eta gure langabezia-tasa % 10etik jaisteko. Hori guztia, kalitatezko enpleguaren eta Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren aldeko apustu partekatuan oinarrituta, tresna hori ezinbestekoa baita gizarte eta lan-arloko politika publikoak negoziatzeko eta adosteko, edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragina duten politikak negoziatzeko eta ituntzeko.

Horrela, bi alderdi politikook konpromisoa hartzen dugu Espainiako Gobernuarekin elkarlanean aritzeko eta estuki lan egiteko, Europako Batasunaren *Next Generation* Programaren funtsak erabiltzeko eta kudeatzeko, bai eta Espainiako Estatuak xede horrekin egingo duen Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalan lan egiteko ere, Europara bidaltzera begira.

Ildo horretan, eta Espainiako Gobernuaren errekerimenduei erantzunez, berariaz eratuko den Erakunde arteko Batzordeari bidali beharreko proiektu eragileen zerrenda adostua egingo dugu, Euskal Autonomia Erkidegoak ekarpena egin diezaien Espainiako Estatuak kudeatutako Europako funtsak jaso ditzaketan proiektuei.



Halaber, eta Elkarriaketa Sozialaren Mahaian eragile ekonomiko eta sozialekin kontrastatu ondoren, premiaz aurkeztuko eta onartuko dugu enplegua eta ekonomiaren suspertzea jarduera-ardatz nagusi izango dituen hazkunde jasangarriko estrategia bat, Covid 19aren pandemiak sortutako ondorio ekonomiko eta sozial kaltegarriei erantzuteko helburuarekin.

### **3. Inor ere atzean ez uztea gizarte kohesionatu batean herrialdeko inbertsiorik onentzat jotzen diren parametroetako bakar batean ere.**

Pobrezia, bazterkeria eta arrisku-egoerak areagotu egin dira Covid 19ak ekarri duen krisi ekonomikoarekin, eta, aldi berean, murriztu egin dira eskuragarri dauden baliabide publikoak.

Egoera horren aurrean, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) bat gatoz zerbitzu publikoak bermatzeko behararekin, gizarte-politiken aldeko apustu irmoarekin eta pertsona eta kolektibo ahulenekiko elkartasunarekin, krisi honetatik inor atzean utzi gabe irtetea lortzeko partekatzen dugun helburua lortze aldera.

Xede horrekin, funtsezko tresnatzat jotzen ditugu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erreforma, hezkuntza-komunitatearekin bat etorritik hezkuntza egokitzea eta hobetzea, etxebizitzarako eskubidea zabaltzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna esparru guztietan eta zalantzarik gabe defendatzea.

Azken legegaldiko esperientziak erakutsi du alderdi politiko biok gaitasuna dugula baliabide publikoak zorroztasunez kudeatzeko eta fiskalitate progresibo eta bidezkoago batean aurrera egiteko, 2020 honetan berrikusi beharko litzatekeen zerbait. EAJ-PNVk eta PSE-EEk (PSOE) adierazten dugu fiskalitatea berrikusteko borondatea dugula, aurretik hitzemandako zegoenari jarraiki. Hala ere, berrikuspen horrek kontuan hartu behar ditu Covid-19aren krisiaz geroztik sortu den errealitate ekonomiko berria, enpleguaren, gure enpresen gaitasunen eta lehiakortasunaren alorrean izan daitekeen bilakaera, eta Espainiako Gobernuak eta, dagokigun proportzioan, Europar Batasunak aurreikusten dituen aparteko ekarpenak.

Akordio hau negoziatzeko unean, oraindik ez dago ezagutzerik aipatutako aldagai asko, eta, nahiz eta horrek eragotzi egiten duen hasieran arlo horretan ibilbide-orri zorrotza zehaztea, alderdi biok konpromisoa hartzen dugu eta elkarri eskatzen diogu fiskalitate berri horren diseinuan aurrera egitea eta erakunde eskudunekin elkarlanean egiteko dagoen zerga-erreformari buruzko hausnarketa egitea, errealitate berrira egokituta, eta zerbitzu publikoak eta enplegua sortzen duen ekonomiari lagunduz Europa mailan konbergentzia fiskalera bideratuz eta ekonomiara eta sortzen ari diren erronketara egokituz, baita ingurumena babesteko irizpideetara ere.



Legealdiaren hasieran gaudela, alderdi politiko biok bat gatoz eta adierazten dugu hitzemandako jarduera politikoei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak bermatzera begira, inbertsio publikoa bermatu beharko dela maila guztietan, baliabideak berrantolatuz administrazioen arteko bikoiztasunak saihesteko eta Europatik berreraikuntzarako planen bidez eta iruzurraren eta zerga-elusioaren aurkako borroka indartzearen bidez eman daitezkeen diru-sarrera berriak eskuratzeko bide guztiak aztertuz, eta politika zorrotz bat aplikatzea.

Horrela, alderdi politiko biok ordezkutzen dugun gehiengo transbertsal eta kualifikatuaz jabetuta ere, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) bat gatoz helburu partekatutzat jotzen dugula erakunde sozial, sindikal, enpresarial eta politiko guztien inplikazioa bilatzea, bai eta herrialdeko gainerako erakundeena ere, berreraikitzekeo neurriak hartzera begira.

Oinarri horiek abiapuntutzat hartuta, alderdi biok Eusko Jaurlaritzaren konpromiso programatikoak planteatzen ditugu, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin eta gure errealitate ekonomiko, sozial eta instituzionalarekin bat datozen lau jarduera-ardatzen esparruan:

## **Lehen Ardatza: OPAROTASUNA.**

Premiazkoa da enplegua berreskuratzea, enpleguaren kalitatea hobetzea eta ekonomia suspertzea xede izango dituen estrategia bat garatzea, Covid 19-aren pandemiaren ondorio negatiboak gainditzeko. Industria aurreratuan, inbertsioan, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarritutako estrategia bideratzea, hain zuzen.

### **I. OPAROTASUNA, PREMIAZKOA: Enpleguarekiko eta susperraldi ekonomikoarekiko konpromisoa**

- 1. Lehen tasun bat: Enplegua**
- 2. Industria lehiakorragoa**
- 3. Berrikuntzaren aldeko apustua**
- 4. Azpiegitura eta garraio jasangarriak**
- 5. Landa-garapeneko eta elikadurako politika**
- 6. Bikaintasuneko turismo jasangarria**
- 7. Merkataritza eta ostalaritza suspertzea**
- 8. Kontsumitzailearen defentsa**



## **Bigarren Ardatza: PERTSONAK.**

Pertsonak dira Jaurlaritza berriaren jardunaren konpromiso politikoaren funtsezko elementua. Pertsonak dira garrantzitsuena, politika publiko guztien xede nagusia. Gure konpromisoa da osasun eta hezkuntza-zerbitzu publikoak sendotzea eta indartzea, eta euskal gizartearen giza garapenari lagunduko dioten gizarte-politika guztiak bermatzea.

### **II. PERTSONAK, GARRANTZITSUA: Osasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzeko konpromisoa**

#### **9. Osasun publikoa indartzea**

#### **10. Bidezko kalitatezko hezkuntza-sistema**

- 10.1. Haur, lehen eta bigarren hezkuntza**
- 10.2. Lanbide-heziketa**
- 10.3. Bikaintasuneko unibertsitatea eta ikerketa**

#### **11. Gizarte-politikak bermatzea**

- 11.1. Gizarteratzea. Gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen euskal sistema**
- 11.2. Etxebizitza, Hiri-berroneratzea eta Hiri-agenda**
- 11.3. Adinekoak**
- 11.4. Familiak eta haurrak**
- 11.5. Migrazioa**

#### **12. Gazteria**

#### **13. Genero-berdintasuna. Indarkeria matxistaren aurkako borroka**

#### **14. Kultura, Euskara eta Kirola**

## **Hirugarren Ardatza: PLANETA.**

Euskal gizarteak bere ekarpena egin behar du planetaren oreka berreskuratzeko eta 2050era begira berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko, Europako Batasunaren konpromisoekin bat etorritik.

Zentzu berean adierazten dugu energia eta klima-trantsizio bidezkoarekin, energia berriztagarrien aldeko apustuarekin, ingurune naturala eta biodibertsitatea zaindu eta babestu beharrezkin eta ekonomia zirkularraren bultzadarekin dugun konpromisoa.



### III. PLANETA, ARDURATSUA: Bidezko energia- eta klima-trantsizio batekiko konpromisoa

- 15. Energia-estrategia berria. Berriztagarrien aldeko apustua
- 16. Klimaren aldeko ekintza. Euskadi Green Deal
- 17. Ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen kontserbazioa
- 18. Ekonomia zirkularren bultzada

### Laugarren Ardatza: **ELKARBIZITZA, AUTOGOBERNUA ETA GIZA ESKUBIDEAK.**

Pertsonen arteko elkarbizitza, justizia eta segurtasuna sendotzera begira egiteke dagoen zereginen lan egiten jarraitu behar dugula nabarmentzen dugu; baita Giza Eskubideak defendatzen jarraitzea ere, eta eskubide horiek egoera guztietan eta herrialde guztietan gauzatu behar dira; era berean, autogobernua eta Gernikako Estatutua osorik bete dadila defendatu behar dugu, eta estatutu-itun berri bat lortu behar dugu hurrengo belaunaldiarentzat.

### IV. BIZIKIDETZA ETA AUTOGOBERNUA, LORTU BEHARREKOA: Autogobernu handiagoa eta hobea lortzeko konpromisoa, giza-garapen jasagarrian aurrera egiteko

- 19. Justizia
- 20. Segurtasuna
- 21. Bizikidetza eta Giza Eskubideak
- 22. Garapenerako lankidetza
- 23. Euskadi. Basque Country. Euroeskualdea
- 24. Baliabide publikoen kudeaketa erantzulea eta gardena
- 25. Autogobernu handiagoa eta hobea. Estatutu-itunaren eguneraketa

Oinarri horiek oinarri hartuta, akordio honek islatzen du pandemiak agerian utzi dituen erronka nagusiei erantzuteko eta Euskadiren berreraikuntza sozial eta ekonomikorako oinarriak finkatzeko egiten dugun apustua, kontuan hartuta larrialdi-fase honetan asmatzea berebizikoa izango dela legealdia amaitzeko orduan, Euskadi kohesionatuagoa izateaz gain, hobeto prestatua egon dadin aurrean ditugun erronka guztietarako.

Irizpide horien arabera garatuko dira **EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO AKORDIOA, ZERBITZU PUBLIKOAK ETA GIZARTE POLITIKAK DEFENDATUZ ETA AUTOGOBERNU ZABALAGO ETA HOBEA OINARRI HARTUTA** izenburuean adostutako akordio-agirian jasotzen diren akordio programatikoak. Oinarri horiek egituratuko ditu EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdiok partekatzea adostu dugun Jaurlaritza berriak, jakitun baikara oso garrantzitsua dela une honetan euskal gizartearentzat ibilbide-orri argi bat eta Gobernu sendoa izatea, berriz ere Euskadi aurrera ateratzeko erabaki sendoarekin, inor atzean utzi gabe.